

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Garapeneko lankidetzarako urteko dirulaguntzen 2019ko deialdiko UK atala ebaztea

Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak betez, iragarki honen bidez jakinarazten zaie interesdunei Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 13an hartutako erabakia. Bertan garapeneko lankidetzarako 2019ko dirulaguntzen deialdia (UK atala) ebazten da. Hauxe dio ebazpenak:

Otsailaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019an garapenean laguntzeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia arautzeko berariazko oinarriak onetsi zituen; lau ataletan banatuta dago deialdia. Horietako bat, UK atala, honela dago definituta:

- a. UK atala: 2017an hasitako urteko proiektu kateatuen jarraipena. Diru-zuzkidura: 325.000,00 euro

Dirulaguntzen deialdiko PT atala ebatzi ondoren soberan geratutakoa (882,22 €) gehitu zaio diru-zuzkidura horri. Deialdiaren oinarrietako 4.2 klausulan zehazten da egoera hori.

Horrenbestez, deialdiko UK atalerako erabilgarri dagoen zenbateko osoa 325.882,22 euro da.

Joan den irailaren 26an bukatu zen eskabideak aurkezteko epea, eta proposamen hauek aurkeztu ziren garaiz eta behar bezala:

SETEM Hego Haizea. DHL eta DESCA, Kichwa Pucará komunan (Ekuador): 109.909,83 euro; Manuel Iradier elkarte afrikarista: Walodiral Gasteiz-Hérico. Emakumeen elikadura-burujabetza eta ahalduntzea sendotzea, baita haien lidergo eraldatzailea ere (Ginea-Conakry): 110.000,00 euro; Mundubat Fundazioa: bake-akordioak gauzatzen; atxilotu politikoei bizitza zibilera igarotzen laguntzea (Kolonbia): 108.002,71 euro. Eskatutakoa, guztira: 327.912,54 euro.

Hiru eskabideek deialdiaren 7.3 oinarrian hirian presentzia, egitura eta jarduera edukitzeari dagokionez eskatutakoa betetzen dutela egiaztatu da, baita 2018an onartutako proiektuen gauzatze maila eta aurreikusitako emaitza-adierazleen aurrerapenak ere.

Proposamenak aztertu, eskabide bakoitzeko fitxa zehatz bat bete eta eskatzaile bakoitzarekin elkarrizketatu ondoren, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak proiektuak balioetsi ditu, oinarrietan adierazitako baremazioari jarraiki.

Barematutako hiru proiektuek betetzen dute dirulaguntza jaso ahal izateko betekizuna, puntuazio hauek lortu baitituzte:

SETEM Hego Haizea: DHL eta DESCA, Kichwa Pucará komunan (Ekuador): 109.909,89 euro: ehuneko 67,50; Mundubat Fundazioa: bake-akordioak gauzatzen; atxilotu politikoei bizitza zibilera igarotzen laguntzea (Kolonbia): 108.002,71 euro: ehuneko 55,85; Manuel Iradier elkarte afrikarista: Walodiral Gasteiz- Hérico. Emakumeen elikadura-burujabetza eta ahalduntzea sendotzea, baita haien lidergo eraldatzailea ere (Ginea-Conakry): 110.000,00 euro: ehuneko 55,13. Eskatutakoa, guztira: 327.912,54 euro.

Aurkeztutako hiru aurrekontuek betetzen dituzte oinarrietan ezarritako betekizunak, beraz, ez da inolako partidarik kendu edo murriztu beharrik eskabideetan. Erabilgarri dagoen kopurua (325.882,22 euro) diruz laguntzeko eskatutako kopuru osoari doitzeko egin beharreko murrizketa (ehuneko 0,62) hiru proiektuen artean hainbanatu da.

Kontuan hartu dira Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 22an onetsitako deialdiaren oinarri arautzaileetan xedatutakoak.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza, zeinari 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman baitzion Gasteizko Udalbatzak hasierako onespena, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zk.- argitaratu baitzen.

Halaber, kontuan hartu dira Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina eta helburu estrategikoak.

Eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2019ko ekainaren 21ean emandako dekretua, Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen. Garapenerako lankidetzaren arloko urteko proiektuetarako 2019ko deialdiko PT atalera aurkeztu diren hiru eskabideei dirulaguntzak ematea:

SETEM Hego Haizea: DHL eta DESCA, Kichwa Pucará komunan (Ekuador): 109.229,31 euro; Mundubat Fundazioa: bake-akordioak gauzaten; atxilotu politikoei bizitza zibilera igarotzen laguntzea (Kolonbia): 107.333,99 euro; Manuel Iradier elkarte afrikanista: Walodiral Gasteiz-Hérrico. Emakumeen elikadura-burujabetza eta ahalduntzea sendotzea, baita haien lidergo eraldatzailea ere (Ginea-Conakry): 109.318,92 euro. Guztira: 325.882,22 euro.

Interesdunei ebazpenaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea ezen, administrazio bideari amaiera ematen dionez, haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkezteko aukera dutela, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean jakinarazte-egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean jakinarazpena gauzaten den egunaren biharamunetik kontatuta.

Deialdi honen barruan emandako dirulaguntzak ALHAOn argitara daitezen agintzea, iragarkian esleipenduna, emandako zenbatekoa eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikulua xedatutako bestelako informazioa agertu beharko delarik iragarki horretan. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 16an

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuen burua
ROSANA URTARAN URTARAN